

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## “Maussketero”ek eskuzabaltasuna aldarrikatzen dute

Frantzian Marcel Mauss etnologia modernoaren aitatzat daukate. Haren abizena sigla bihurtuta, MAUSS mugimenduak gizarte zientzietan ari diren aditu eta irakasleak biltzen ditu ardatz orijinalon inguruan: anti-utilitarismoa eta gizakien arteko dohainen garrantzia.



DOHAINAZ ARIKO GARA ONDOKO lerrootan. Ikusi Elhuyarren hiztegiaren definizioa: “Dohain. Norbaitengandik jasotako nolakotasun ona, onura edo mesedea”. Berdin erabil genezakeen dohaintza: “Pertsona fisiko edo juridiko batek beste bati, ordainetan ezer hartu gabe, zerbait ematea; ematen dena bera”. Frantsez eta gaztelaniaz *don* diotena. Irakurleak munduko arazo nagusiren bat aurkitu beharko lukeen orriotarako gai interesgarria ote da?

Hala uste dute *Mouvement Anti-Utilitariste dans les Sciences Sociales* (MAUSS) mugimendukoek. Etnologian, soziologian, antropologian, ekonomian eta beste gizarte zientzietan ari diren irakaslez osatutako mugimendu honek baditu aldizkaria (*La Revue du Mauss*) eta maiztasun handiagoz berritzen den gune elektronikoa; horietan artikulu burutsuak eskaintzen dizkiote dohainari, ordain segururik gabe gizakiek elkarri egiten dizkieten emari eta opariei.

Mugimenduaren inspirazio iturria Marcel Mauss (1872-1950) izan da. XX. mende hasierako jakintsu hau soziologiaren sortzailetzat jotzen den Emile Durkheim-en iloba zen. Lehen Mundu Gerran Durkheimen inguruko gehienak desagertu zirenean, Mauss jarraiki zitzaion haren bidetari. Gizon berezia, gaztetan kirolari izana, bere bizitzan gai ezberdi-

nen inguruko liburuak aritu zen prestatzen, sekula bakar bat osatu gabe, baina ikerketa, artikulu eta eskolekin soziologo frantses belau-naldi bat antolatu zuen.

Maussen fama da antropologia frantsesa eta etnologia berak fundatu zituela. Berrito modan jarri da Artikoko inuit jendeaz egin zuen ikerketa sakona, eta Parisko Trocaderon dagoen *Musée de l'Homme* nabari omen da haren eskua oraindik.

Sozialista iraultzaile eta lehen kooperatiben mugimenduko kide ere izan zen Mauss. Ez hala ere marxista. Barrutik ezagutu zuen Sobiet Batasun jaio berriko sistema, eta ikaratuta etxeratu ei zen. Boltxebikeen terroreatatik eta demokraziarik ezagatik, baina baita ere han merkatua desegin ezin izan zutelako. Komunisten “helburuek bitartekoak justifikatzen dituzteneko dotrina zinikoa” ez zen Maussentzako kalkulu komertzial eraldatu bat baizik. *Essai sur le don* idaztea izan zen bere erreakzioa.

Maussek zioen zientzia sozial eta ekonomikoak oinarrian oker daudela. Gaur bezala, orduan ere giza harreman guztiak sal-erosketa klabean esplikatzeko ziren. Ekonomia antzinatzen egiten omen zen trukea hobetzeko asmatutako diruaren garapena besterik ez zen. Maussen aburuz hori ere oker dago. Ordurako antropologo batzuek gizarte askoren

funtzionamendua bestela esplikatzeko zuten, taldeen eta kideen arteko dohainezko harremanen arabera. Batzuetan norik gehiago oparitu lehiaketan aritzeraino iristen ziren.

Maussek esplikazio zientifikoa aurkitu nahi zien teoria sozial eta ekonomiko nagusiek esplikatu ezin zituzten fenomenoei: elkarlanerako joera, taldearentzako sakrifikatzea, eskuzabaltasuna, etxeko atea zabalik edukitzea... Baina haren ideiak ahaztu samarrak geratu ziren 1980ko hamarkada arte. Urte horretan Alain Caillé soziologo frantsesak eta Gerard Berthoud antropologo suitzarrak sortu zuten MAUSS.

### Dohainaren paradigma

Sylvain Dzimirak *Une vision du paradigme du don* artikuluan laburbildu ditu pentsakera honen ardatz nagusiak. Giza zientzietan zabalduta dagoen ikuspegi utilitaristaren arabera, giza-kion interes partikularrak daude, konturatuta edo oharkabean, guk pentsatu, gastatu, bozkatu edo maitatzen dugun orotan. Eskuzabaltasunak berak atzean, inkontzientean akaso, interesa ezkatzen du beti.

Aldiz, MAUSSeko jendearen arabera, dohaina berez da anti-utilitaria. Interesak badaude, baina dohaina haiei kontrajartzen zaie. Dohainak etsaiak lagun bihurtu ditzazke, jendeen arteko harreman sakonak josi.



Ezkerreko marrazkikoa da Marcel Mauss eta Wikimediak erakusten du. Lerroon ondoan Artiko aldeko inuit familia, Edward S. Curtisek 1930 aldean ateratako argazkian. Inuit jendeaz urte luzez aritu zen ikerketan Mauss, eta haietaz idatzitako lanek azken urteotan berriro hartu dute fama. Munduko beste etnia eta kultura asko aztertu zituen Frantziar antropologiaren eta etnologiaren aitatzat daukaten Mausek. Antzinako gizarte askotan loturak dohainen gainean josten direla ohartuta eraiki zuen dohainari buruzko teoria, gako hirukoitzean bildua: dohaintza egin beharra, dohaina onartu beharra eta ordaina dohainez eman beharra.

Bakearen eta gerraren artean dago dohaina, biziaren eta heriotzaren artean. Antropologoen deskribitu dituzte gizarte bereziak beren arteko etsaigoak oparika konpontzen zituztenak, ea zeinek emari handiagoa.

Dohainak eskuzabal izatea adierazten du: ordain segururik gabe ematen duenak eskuzabaltasunezko lotura sortzea nahi du. Horretarako, sarritan, dohain gehiago eman behar da gero ordainetan jasoko dena baino. Bestalde, dohaintzak, libre izanik, betekizuna sortzen du. Hor sartzen dira dohainaren hiru gakoak: ematea, onartzea eta ordainetan ematea.

Ematea libre da, onartzea eta ordain batez erantzutea diren bezala. Baina behartuak ere badira, derrigorrezkoak: derrigortuta hautatu behar

duzu eman edo ez, hartu ala ez, itzuli ala ez. Azkenean, zure esku dago bake bidea ala gerra bidea hautatu.

MAUSStarren iritzian lan kontratuetan ere badago dohainetik. Langileak soldata jasotzen du, baina diruz ordaindu ezin dena ere uzten du, biziaren, izatearen eta denboraren zatiak lagatzen ditu lan harremanean. Horregatik iristen da laneko harremana kontratuan idatzita dauden baldintzetatik haratago. Zer esanik ez lan hori borondatezkoa denean.

Ez da harrigarri dohainaren teoriaren interesatzen direnetako asko mugimendu sozialetan ari diren militanteak izatea. Haien emankortasuna ez baitute erabat esplikatzen nagusi diren teoria utilitaristek. Bestalde, esplikazio arrazoizkoa eskaintzen dio militante

horien intuizio edo sentimenduetako bati, hau da, gaur eskuartean dauzkagun ondasunak aurreko belaunaldiekin edo naturak eskaini dizkiguten dohainak direla, eta horien ordaina eman beharra daukagula, xahutzeko partez.

Dohainaren inguruko bibliografiaren bila Aristoteleseraino edo atzera-gera iritsi daiteke. MAUSSekoek jakiera teoriko bereziz apaindu dute ordea urteotan. Baina ez litzateke joko teoriko sofistikatu bat baizik izanzen baldin eta gertatuko ez balitz ideia hauen hausnarrean ari direla zenbait militante aurrerazale alternatibo, hala nola *Decroissance* mugimenduan dabiltzanak, tartean Serge Latouche ezaguna, 1995az geroztik gutxienezko diru sarrera minimo unibertetsala aldarrikatzen ari diren batzuk... Oro har, neoliberalismoaren kontrako militante aurrerazale ezagunak.

Maussismoaren ezaugarri batzuk honela definitu ditu Dzimirak: "Jakín behar da dohaintzen, ez gehiegi eta ez gutxiegi: eskuzabala izan, hartu dena baino gehiago eman, baina eman ahal izateko metatzen jakín; ez sentitu sekula zorretatik aske, kontratua beteta edo zerbaiten jabegoa eduki arren. Norberaren eta besteen ezagutza zuhurra behar da, norbere burua ez estimatu gehiegi baina ezta gutxiegi ere. Dohainaren moralak ez du esaten dohaina baizik ez dela bilatu behar: esaten du hobe dela moral guztiak busti daitezkeen dohainaren lurinez?". Horra ematearen esplikazio laikoa. ■

[www.argia.com/nethurbil.php](http://www.argia.com/nethurbil.php)  
helbidean, gai honi buruzko informazio  
gehiago eta Interneteko loturak.



ZINKUNEGI  
OPTIKA

**Garantia.**

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,  
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624 · [zinkunegi@euskalnet.net](mailto:zinkunegi@euskalnet.net)

